

Euskal unibertsitateen lege-aurreproiektuan aldatzeko/txertatzeko alderdi nagusiak

LABek bere ekarpenak aurkezten dizkio Euskal Unibertsitateen Legearen Aurreproiektuari dokumentu honen bitartez. Proposamen horiek jarraian laburbiltzen dira, eta, ondoren, eraginpeko artikuluei buruzko aipamen zehatzen bidez garatzen dira, idazketa-proposamen alternatiboekin batera.

Ekarpen horien helburu nagusia Euskal Herriko unibertsitate-sistema publiko eta burujabearen bidean kokatzen den EAeko unibertsitate publikoa defendatzea da, euskal jendarteari eman behar dion zerbitzua ahalik eta baldintza onenetan eman ahal izateko, EHU finkatzeko nazioarteko erreferentziatzeko unibertsitate publiko gisa, jakintza sortzaile gisa eta euskararen zein euskal kulturaren ezagutza, ikerketa eta transmisio sustatzaile gisa. Era berean, ezinbestekotzat jotzen da lege honen bidez indartzea, besteak beste, langileen lan-baldintzak, unibertsitate publikoak izan behar duen aurrekontu zuzkidura nahikoa, euskararen hedapena, kontziliaziorako bermea, desmilitarizazio-printzipioak edota unibertsitate pribatuei arlo guztietan exijentziak handitzea, unibertsitate publikorako exijentzia mailara hurbiltzeko (are gehiago finantzaketa publikoa jasotzen dutenean).

Testuinguru horretan, lehentasunezkoztat jotzen da arreta berezia jartzea aurreproiektuan deskribatutako alderdi batzuetan:

1. Hezkuntza-sistema burujabe eta propioa: Unibertsitateen Lege berriaren zioetan Euskal Herriak bere hezkuntza-sistema burujabe eta propioa eratzeko duen eskubidea jaso behar da, egungo hezkuntza-sistemak dituen gabeziak (eskuduntzei dagokionez eta ereduari dagozkionak) onartuz eta xede izanik horiek gainditzea. Egungo estatus juridiko-politiko gaitu eta, unibertsitateen eskumen osoaren transferentzia eta erabaki ahalmen osoa beharrezkoa dela jaso behar du legeak, besteak beste, bere langileen baldintzak arautzeko erabateko eskumena. Era berean, legeak egituratu behar du Euskal Herriko gainontzeko lurraldeekin izango duen harremana.

2. Finantziarioa: Unibertsitate publikoaren finantzaketa egokia bermatu behar da, gutxienez, EAeko BPGren % 1eko helburua ezarritik.

3. Plantillaren egokitzapena: Plantilla nahikoa izan behar da IRI zein TEKAZEL arloan euskal jendarteari eman behar dion zerbitzua eman ahal izateko. TEKAZEL/IRI ratioa handitu behar da. Bestalde, irakasle ordezkioak ezinbestekoak dira bajek, baimenek, lizentziek etab. sortutako hutsuneak betetzeko irakaskuntzaren kalitatea bermatzeko. Egiturazkoak diren baina esternalizatuta dauden zerbitzuak publikatzeko eta langileak subrogatzeko aukera legean txertatu beharra dago.

4. Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio Zerbitzuetako Langileen karrera profesional horizontal zein bertikala jaso behar da. TEKAZEL langileen lan ibilbideari eta eskarmentuari balioa eman behar zaio.

5. Irakasle-ikertzaileen karrera akademikoa: Unibertsitate “prestigiotsuetan” bi urteko egonaldiak egin beharra berrikusi eta birformulatu egin behar da, faktore

ekonomikoak, kontziliaziokoak eta aukera-berdintasunekoak kontuan hartuta. Horri lotuta, egonaldiak egiteko beharrezko finantzaketa ezinbestez bermatu behar da, bai langilearen gastuak (klase arrakala ez areagotzeko) zein beharrezko ordezkapenak kontuan hartuta. Bestalde, IRIen iraunkor bihurtzeko eta promozionatzeko eskubidea nabarmen zailduko luke, sail batzuetan irakasle berriak lortzeko arazoak areagotuz.

6. Irakasle eta ikertzaileen soldata-baldintzak: Soldata eta ordainsariak exijitutako titulazio eta irakaskuntza, ikerkuntza, transferentzia eta kudeaketa ekarpenei bat etorri behar dira, irakasle-ikertzaileak erakartzeko eta beste sektore profesional edo lurralde batzuetara joan ez daitezen. Ordainsari osagarri guztiak finkatuak izan behar dira eta oinarritzko soldata bezala eguneratu behar dira.

7. Unibertsitate pribatuen aldeko politikak mugatzea: Unibertsitate pribatuak ez dira aurkeztu behar unibertsitate publikoaren alternatiba baliokide gisa, eta ez dute arau-
eskakizun txikiagoen onurarik izan behar funtsezko alderdietan; hala nola karrera akademikoan, euskarazko irakaskuntza-eskaintzan, titulu berrien ezarpenean edo unibertsitate publikoan lehendik dauden titulazioen bikoizketan.

8. Euskararen babesa eta sustapena: Euskarak lehentasunezko tratamendua jaso behar du, euskaraz lan egin eta ikasteko eskubidea bermatzeko eta hizkuntza ofiziala euskara duten beste unibertsitate batzuekiko lankidetzara eta harremana errazteko.

9. Euskal Herriko unibertsitateen arteko harremanen artikulazioa: Aurreproiektuan Euskal Herria diluituta geratzen da “Euskararen lurraldeak” terminoarekin. Legean Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko unibertsitateekin harremanak lehenetsi behar dira.

10. Negoziazio kolektiboa: legezko langileen ordezkariak sindikalarekin lan-baldintzak negoziatu behar dira, negoziatio-kolektiborako dugun eskubidea errespetatuz eta soldatari zein enpleguari dagozkion gain guztiak hemen negoziatuz. Jaurlaritzak Madrilen adosten dena inposatu gabe. Alderdi hau ez zen aipatzen ere lege aurreproiektuan.

Gogoeta horiek aldatuta-proposamenetan eta aurreproiektuaren hainbat artikuluri egindako ekarpenetan zehazten dira.

Principales aspectos de modificación/inclusión en el anteproyecto de ley de universidades

A través de este documento LAB presenta sus aportaciones al Anteproyecto de Ley de Universidades. A continuación se resumen las propuestas y posteriormente se desarrollan mediante referencias concretas a los artículos afectados, junto con las alternativas de redacción propuestas.

El objetivo principal de estas aportaciones es la defensa de la universidad pública de la CAV que se sitúan en el camino de un sistema universitario público e independiente para Euskal Herria. El objetivo es prestar el servicio que necesita la sociedad vasca en las mejores condiciones posibles, consolidar la EHU como una universidad pública de referencia internacional, generadora y transmisora de conocimiento, referente en investigación y agente esencial de transmisión del euskera y la cultura vasca. LAB considera imprescindible garantizar mediante esta ley, entre otras cosas, las condiciones laborales de las y los trabajadores, una dotación presupuestaria suficiente para la universidad pública, la expansión del euskera, las medidas de conciliación, los principios de desmilitarización y aumentar el nivel de exigencia a las universidades privadas en todos los ámbitos para acercarlas a lo exigido a la universidad pública (máxime cuando reciben financiación pública).

En este contexto, LAB considera prioritario prestar especial atención a algunos de los aspectos del anteproyecto:

1. Sistema educativo soberano y propio: La nueva Ley de Universidades debe recoger en su motivación el derecho de Euskal Herria a configurar su propio sistema educativo, reconociendo las carencias (competenciales y de modelo) del actual sistema educativo con el fin de superarlas. Superando el actual estatus jurídico-político la ley debe recoger la transferencia y plena capacidad de decisión en materia de universidades, entre otros aspectos, la competencia exclusiva para regular las condiciones laborales de su personal. Asimismo, la ley debe estructurar su relación del sistema educativo con el resto de Euskal Herria.

2. Financiación: Se debe garantizar una financiación adecuada de la universidad pública estableciendo un objetivo mínimo del 1% del PIB de la CAV.

3. Adecuación de la plantilla: La plantilla de la universidad pública debe ser suficiente para poder prestar el servicio que necesita la sociedad vasca tanto en el PDI como en el PTGAS. Hay que aumentar la ratio PTGAS/PDI. Por otro lado, el profesorado sustituto es imprescindible para garantizar la calidad de la docencia al cubrir las necesidades producidas por bajas, permisos, licencias, etc. Además, la ley debe incorporar la publicación de servicios estructurales pero actualmente externalizados y la surogación de su personal.

4. Incluir la carrera profesional horizontal y vertical del Personal Técnico, de Gestión y de Administración y Servicios. Hay que poner en valor la trayectoria y experiencia laboral del PTGAS.

5. Carrera académica del PDI: Se ha de revisar y reformular la obligatoriedad de realizar estancias de dos años en otras universidades “de prestigio”, teniendo en cuenta aspectos económicos, de conciliación e igualdad de oportunidades. En este sentido, es imprescindible garantizar la financiación necesaria para la realización de las estancias, tanto los gastos del personal (para no ensanchar la brecha de clase) como de las sustituciones necesarias. Por otro lado, este requisito dificultaría notablemente el derecho a la estabilidad y promoción del PDI, agravando los problemas para incorporar nuevo profesorado en algunos departamentos.

6. Condiciones salariales del PDI: Las retribuciones del PDI deben ser acordes con la titulación exigida y las aportaciones de docencia, investigación, transferencia y gestión exigidas para atraer profesorado y evitar que el actual se vaya a otros sectores profesionales o universidades. Todos los complementos retributivos deben ser consolidables y actualizados como el salario base.

7. Limitación de las políticas a favor de las universidades privadas: Las universidades privadas no deben presentarse como alternativa equivalente a la universidad pública ni beneficiarse de exigencias normativas inferiores en aspectos esenciales como la carrera académica del PDI, la oferta docente en euskera, la implantación de nuevos títulos o la duplicación de titulaciones ya existentes en la universidad pública.

8. Protección y promoción del euskera: El euskera debe recibir un tratamiento prioritario para garantizar el derecho a trabajar y estudiar en euskera así como facilitar la colaboración y relación con otras universidades cuya lengua sea el euskera.

9. Articulación de las relaciones entre las universidades de Euskal Herria: En el anteproyecto de ley Euskal Herria queda diluida con el término “territorios del euskera”. En la ley deben primar las relaciones con las universidades de Nafarroa y Ipar Euskal Herria.

10. Negociación colectiva: La ley debe garantizar el derecho a la negociación colectiva con la representación sindical de la plantilla. Se debe negociar **aquí** todas las cuestiones salariales y condiciones laborales. Sin imponer lo que el Gobierno acuerda en Madrid. Este aspecto ni siquiera se menciona en el anteproyecto de ley.

Estas consideraciones se concretan en las siguientes propuestas de modificación y aportaciones a diversos artículos del anteproyecto.